

Txema Montero

1954, Deustu. Abokatu. HBko kide esanguratsu ohia. Abertzaletzat du bere burua, sozialdemokrata eta europar zalea. Inoiz baino behar handiagoa ikusten du euskaldunon autogobernuko instituzioak indartzea. Kezkatuta dago euskal nazionalismoaren espresio politiko elektorala Euskal Herria penintsularrean minoria izatera pasa delako eta ia-ia anekdotikoa izaten jarraitzen duelako lurralde kontinentaletan.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Judit Fernandez



«IRAk pazientzia demokratikoa izan du, ETAk aldiz ez»

Txema Monterok ekintza politikoa hobesten du biolentziazko edozein espresio baztertuz. Behatzaile gisa mintzatu zaigu, euskal errealitate politikoarekin konpromisoz.

Nola daramazu HBn bizi izan zenuen esperientzia politikoa?

Garatu ezinezko ekimen politikoa bezala daramat, militarren ekintzape- tik ezin deslotu izanak frustratua nolabait. Hori da sentsazioa.

Eta HB legez kanpo ezarri izana?

Neronek eraman nuen HB instantzia juridiszionaletara legalizatzeraz eta

uneon ilegalizatuta ikusteak –HB nahiz Batasuna zein gainerako alderdiak– frustrazio politikoa eragin dit. Batasuneko kideak espetxeratzea –ETAren kide izatearen akusaziopean– bidegabekeria da. Pertsona hauetako batzuk ezagutzen ditut eta badakit ez dutela ETAren dependentsiarik, ez hierarkikoa eta ez funtzionala. Prozeduraren autoek baieztatzen dute hori guztia.

Harreman pertsonalak gorde al dituzu?

HBn nengoeneko harremanak egun Aralarren dauden kideekin nituen batez ere. Orduan eta orain. Eta hau azpimarratzen dut beraiekin ulertze

ideologikoa eta politikoa dudalako nolabait. Beste batzuekin harreman pertsonala daukat baina urruna eta normalki haiek deitzen didatelako.

Inboluzio garaian gaude, antza.

Bai. Gatazkak, ETAren nahikundetik ulertzen badugu, luze iraunen du. ETAk uste baitu uneon ezinezkoa dela Estatuarekin negoziatzia. Pentsatzen hasia naiz ETAk Estatuarekin lasterke- ta luze honetan negoziatzia lortzea baino ezker abertzalearen nagusitasuna lortzea xede duela, alegia berau orde- katu nahi duela. Estatuaren aurkako borroka militarrek badu korolarioro gero

eta inportanteagoa: euskal nazionalismoaren gurasotasuna lortzea. Hau da, borroka herrikoia luzetsi —maismoaren zentzuan ulertua— abertzaleatasunaren jabe izateko, eta hartara, Estatuarekin negoziatzeko posizio politiko hobegoan egoteko.

Ezker abertzalea nola ikusten duzu tesitura horretan?

ETA ez da soilik ezker abertzalearen parte karismatikoa, berau ENAM edo Batasuna edo ANV ulertzen badugu. ETA errenditzen ez den jendearen ordezkari nagusia da, azken unera arte eta ondorio guztiekin borrokatzeko prest dagoena. ETAk aldi politiko zehatz bakoitzean ezker abertzalea lideratu du bere interesen arabera. Ezker abertzaleak hala ere, ETA lider karismatikotzat dauka, eta ez du batere interesik berarengandik deslotzeko. Beraz, ETA eta ezker abertzalea pakete berean doaz, onerako edo txarrerako.

Euskal arazoa ebazteko bidean, zuk zeuk Ibarretxeri kontsulta delakoa bazter uztea gomendatu diozu. Zergatik?

Kontsultaren arazoa da ez duela subjektu politiko definitua. ETAREN kontzeptio totalitaristaren arabera, euskaldunok herri uniforme osatzen dugu, nahikari bateratua, autodeterminazioaren aldekoa, zazpi lurralde historikoei osatua, ezaugarri komuna hizkuntza dutena batez ere. Nire aburuz, aldiz, euskaldunok lurralde ezberdinek zeharkatuta gaude, auto-baiezpen eta identifikazio diferenteei karakterizatuak. Hitz batez, ez gara instituzioek berek ordezkatuak. Abiapuntu hori okerra da edo nire ikuspegia behintzat ezberdina. Euskaldunok, zoritxarrez, jarrera abertzaleak defendatzen ditugunok kasurako, oso argiak gara gure definizioan baina ez horrenbeste gure jarreretan. Beraz, subjektu politiko ondo definitu gabe, edozein kontsulta politiko espresio elektoralen menpe izango da. Horra kontraesana: euskaldunok aukeratu nahi dugu eta hauteskunde bakoitzean euskaldunok geure kontra bozkatzen dugu. Uneon, azken bozketaren arabera euskal nazionalistok minoria gara euskal lurralde guztietan.

Nola ikusten duzu kontsultaren afera hauteskundearen ostean, orduan.

EAJk bere politika errealtatearen printzipiora egokitu ohi du. Honek

pentzarazten dio Eusko Legebiltzarrean gehiengo dagoela erabakitzearen alde. Azken hauteskundearen ostean hori aldatzen hasi da ordea. EAJk entzun eta kasu egin behar du ez badu nahi Euskadi zerbait bizia bezala imajinatu eta aldi berean errealtatetik kanpoko. ETAk bezala funtsean. ETAk euskaldunok berarekin liluratuta bagina bezala jokatu du, komunitate politiko honen etorkizunaz zer egin nahi dugun jakingo bagenu bezala.

Eusko Jaurlaritzaren politikaren norabidea, oro har, ez duzu ere garbi ikusten.

Ez nator bat Jaurlaritzaren maximo hauekin: “Gure autogobernua sistema bikaina da. Gure BPG ona da. Ongizatearen maila ona: batez bestekoaren gainetik eta buruan direnetik hurbil Europan”. Eta aldi berean dio “erabaki”

“Euskaldunok, zoritxarrez, jarrera abertzaleak defendatzen ditugunok kasurako, oso argiak gara gure definizioan baina ez horrenbeste gure jarreretan”

behar dela gure herrian ditugun arazoak soluzionatzeko. Honek zalantzak eta galderak eragin ditu jendearen baitan: “Horren ondo baldin bagaude zertarako aldatu? Aldatu behar bada zertarako arriskatu?” Beraz, kontraesana begi-bistakoa da. Ez gaude horren ondo. Nik uko egiten diot ondo gaudela sinesteari, autogobernuari dagokion gaietan agortze moduko bat izan da: osasun, irakasuntza eta seguritatean, adibidez. Hiru osagai funtsezkoak dira autogobernua eta instituzioak bermatzeko.

Beraz...

Autogobernuaren oinarritzko osagaiak agortuz doaz, eta aldi berean oraindik ez ditugu geure bitartekoak munduko ekonomia globalizatuan egokitu. Tesituinguru horretan, euskaldunok Europako eskualdeetatik kanpo geratzen ari gara, eta gaia berealdikoa da.

ETAREN tesietako bat trantsizioan hauxe zen: ekonomikoki gero eta okerrago, hobeto burujabetasuna lortzeko.

Hori ez du inork inoiz sinestu izan... ETAKO kideek ez dute gose greba hiltzeraino egin inoiz, ez dute sinestu inoiz denarekin bukatu behar dela. ETAREN ekintza armatua alde batera, fenomeno sozio-politiko iraultzaile bezala hartuta, berau erresistentzia mugimendua bezala joa izan zen, bada, Lemoizko Zentralaren aferan, proiektu gogaikarria, zenbaitek proposatu zuen argindarraren faktura ez ordaintzea, argindarra moztzeraino. Bakarra ezagutzen dut argirik gabe geratu zena: EHUKO Jose Ramon Etxebarria irakaslea, kandeletan geratu zen faktura ordaintzeari uko egin ziolako. Gure herrian, borroka armatua praktikatzeko dutenak prest daude azken odol tanta barreiatzeko, baina ez berea, besteena baizik. Herritarrek ez dute beren ongizatearen nimitzua ere galdu nahi. Gizarte hau asebeteta eta kontent dago. Aldaketa aldarrikatzen dutenak ez daude hutsetik hasteko prest beste oinarri sozial eta juridikoa ezartzeko. Bien bitartean, aitzitik, ETAREN jarduerak Estatu indartu du.

Nola esplikatuta daiteke herritarrek hori onartzea, gizarteak egoera hori ez gaitzitea?

Hasteko, ezker abertzaleak egoera hori gaitzitzeko agertu duen gaitasun eza begi-bistakoa da. Horixe da nire frustrazio handienetakoa. Ezker abertzaleak erakutsi zuen gizarte mugiarazteko gaitasuna zuela, baita beste esperientzietatik edota ezkerreko “maileguak” hartzeko. Alabaina, ez du gaitasunik izan politikoki egituratzeko eta berezko ahotsa eta liderazgoa izateko. ETAREN lidertza onartu du: “Denetarako prest direnez gero guk sostengatu behar ditugu isil”. Ez dugu gaitasunik geure babak eltzetik ateratzeko eta ETAK egin behar du ekintza armatuaren bidez. Eskema hori, ezker abertzalearen eskalatik gizartera zabaldu daiteke, baita posizio politikoetara ere: PSE-EEK ez du gaitasunik —ziur aski borondatea ere gutxi— ez euskal izaerarik erakutsi PSOERI “neurri hau ez da egokia euskaldunontzat eta kontra egingo dut” esateko. PPK zer esanik ez. Nazionalismo zibikoak ere ez du gizarte gorpuztze hori osatzeko gaitasunik izan, instituzioak sortu ziren garaian izan ezik. Ostera, zatituta dago. Egunen batean galdera hau

egin beharko diogu geure buruari: nazioa osatzen duten ezaugarriak edukita, hizkuntza, instituzioak (foraltasuna) nola iritsi gara XXI. mendera Estatua osatu gabe? Hori da gure paradoxa.

Paradoxaren arrazoiak gogoetatu duzu?

Aurkitu dudak azalpen bakarra da, subjektu politikoaren inexistentzia: euskaldun bat aburu bat, bi euskaldun bi aburu, hiru... Bandokideek edo banderizoez zeharkatuta gaude, hori da elementu eraginkorra. Gero lurraldetasuna bizitzeko modu ezberdinak daude. Halaber, euskalduntasuna ez da Donostian eta Gipuzkoan gauza bera, ez Bizkaian eta Bilbon. Eta gainerako lurraldeetan... egin kontu.

PSEko Egiguren presidentek "Otegi ez du kolpea mahai gainean jo" esan berri du. Demagun horrela izan dela, baina kartzelan dago. Eta bera bezala Batasuneko ia kide denak. Loiolako negoziazioak gehiago espero zitekeen?

Nik ez nuen asko espero. Irudi baten bidez azalduko dut nire ikuspegia: "Bilera batean hainbat alderdiko lagunak iritziak elkarraldatzen ari dira. Batasunekoek izaera politikoa duen azalpen sakona egin dute, bide politikoan aurrera egiteko, demagun. Bat-batean, ETArekin ustez harreman zuzena duenak hitz egiten du, eta berehala gainerakoak bere iritziak urruntzen hasten dira eta esaten dute: solaskide honek esan duenak interesa badu... baina". Hau da, zaila da, eta uneon are zailagoa. Garzonek ETA eta Batasuna batu egin dituelako beren zori pertsonalean eta erakunde berean. Denak kartzelan sartu ditu, luzerako. "Denak ETakoak zarete" esan die. Denak uztartu ditu eta honek lotura indartu.

ETAko agintean belaualdi berrien aldaketa aipatu ohi da. Iraganen Txikiardi edo Artapalo ziren orain Txeroki da. Kasu. Zuk nola bizi duzu aspektu hori?

Nik ez dut ezagutzen Txeroki edo bera antzekorik. Nik buruzagi batzuk ezagutu nituen ETAko buruzagiekin biltzea erlatiboki erraza zenean. Ni konbentzitutua nago ETAk baduela zuzendaritza politikoa, baita *posabasoak* irakurtzen dituen ere, politikaz idazten dena lau koloretara azpimarratu duena eta saiatsen dena ekintza arma-

tuak ondorio politikoak izan ditzan une konkretu bakoitzean. Konbentzitutua nengoen eta esan nuen ETAk hauteskunde kanpaina amaitu aurretik atentatu bat egingo zuela. ETaren ekintza bortitzaren atzean logika politikoa dago.

"Zapatero ez da politikari sinesgarria. Ez da *hábil* baizik eta *lábil*. Pertsona bihurria da, soluzioa bere interesen alde bilatzen eta ziria sartzen duena"

ETAren inguruko konspirazio posibleen eta instrumentalizatuaren teoria zer iruditzen zaizu?

Hori absurdua da. Niretzat ez dago halakorik. ETaren arazoa –borroka armatuak 40 urtez iraun du eta ez ditu bere objektiboak lortu– paradoxikoa da. ETA pertseberantzia besterik ez da. Gertakarien menpe bizitzen ohitu dena. ETak ezin izan du egoera aldatu eta egoerak bere izaera aldatu du.

"EAJk bere bidea aurkitu behar du. Bere irudia boxealari ukituarena da, koadrilateroaren bazterra bilatzen ari da arnasa hartzeko eta ez du aurkitzen"

ETAren egoskorkeria azpimarratu duzu.

ETAren ezaugarri ezkorrena, gure herriaren ezaugarria, egoskorkeria da. Batzuentzat balore positiboa da, niretzat ez. ETaren egoskorkeria irautean datza. Agian ETArekin huts egin duena enpatia falta izan da. Negoziatioaren parteak ez dira besteen buruan jarri, Irlandan aldiz bai. Esperientziak dakit, bizitzaren zoriaz Ipar Irlandako bake prozesuan aritu ziren bi pertsona 'mekanikoak' ezagutu nituen. Hau da, prozesuan hitz egindakoaz ministroarengana zihoazenak, ingelesez nahiz irlandarren kasuan. Irlandarra hilda dago, bere elegia egin

nuen publikoki. Euskal Herrian ez bezala, ingelesek auzia estatu arazoa bihurtu zuten, kontserbadoreak edo laboristak izan, gobernuan aholkulari bat zegoen beti aldi aldiko ministroen inguruan.

Ezagutzak zerbait konkretua erakutsi al dizu?

IRAk lehergailu bat ipini zuen Belfasteko arrandegi batean eta hamabi herritar hil zituen negoziatzen ari zirela. Gerry Adams IRAko kidea- ren zerraldoa bizkarrean agertu zen biharamunean, lehergailuak IRAko kidea ere hil baitzuen. Tonyri deitu nion [ingelesez]: "Hau katastrofea! Dena pikutara joan da". Berak, ingelesez gobernuaren aholkulariak: "Zer besterik egin dezake Gerry Adamsek, ez bada hilkutxa eramatea" esan zidan. Noski, bestela legitimitatea galduko zukeen bere aldean. Adams ez litzateke behar zuten mintzakidea izango jada. Pentsak Adams egurtu zuen "zinkoa" deituz. Ez dut uste Espainiako Gobernuaren eta ETaren artean halako harremanak izan direnik.

ETA belaunez belauneko fenomeno da, IRA nolakoa?

Irlandarekiko diferentzia handietako bat hori da. Gerry Adams 1968an IRAko boluntarioa zen Belfasten. Martin McGuinness berriz Derryn. Britainia Handiak Irlandako auzian Sinn Féin eta IRAren kasuan bi abantaila izan ditu negoziatzeko orduan: IRA eta Sinn Féin ia bera ziren. Ez zegoen zuk lehen aipatu duzun Egigurenen "Otegi ez duela ukabildakada eman" delakoa. Egigurenek Sinn Féinekoarekin hitz egitean IRAkoarekin hitz egingo zuen, Otegi ez zuen ukabildakada eman beharko. Otegiaren alter egoak "akordioa sinatzen dugu edo ez" esango zuen. Hori abantaila izugarria da. IRAn ez da belauetik belauera hausturarik izan. Negoziatu duen IRAko jendea ia praktikoki 1968tik IRAn zegoen.

Agian hemengo Gerry Adamsek Josu Urrutikoetxea izan behar luke...

Nik Josu Urrutikoetxearekin harreman politikoa izan nuen behiala. Gaur arte ez du Gerry Adams denik erakutsi. Otegi ez dut ezagutu pertsonalki...

“Arazoa ez da prezio politikoa eskatzea bakearen truke. Kontua da denek nahi diotela bakeari etekina atera, eta etekin askoren pilaketak bakea ezinezkoa egiten du”.

elkartek ez zuten bake prozesua oztopatu. ETAk gizarteko kideen kontra jo du. ETAk ez ditu jakin zein diren bere mugak ezta Espainiako politikaren errealitatearen printzipioak ezagutu ere. Dena esatera, Espainiako Gobernuak ez du ETAREN egoskorkeria ezagutzen ikasi ere.

ETAk logika politikoa duela esan duzu hala ere.

Bai, baina ETAREN irakurketa politikoa alde aurretiko premisa politiko oker batetik abiatzen da: existitzen ez den Euskal Herritik abiatzen da. Horren arabera jokatzeko du politikoki. Ez da bakarrik gizartearen gehiengoa

ez egotea ados bortizkeriaren erabilpenarekin, ez da konturatzen biolentziak herriari kalte egiten diola. Ez da oharitzen herritar gehienek ez dutela berak pentsatzen duen bezala jokatzeko, ez da oharitzen Espainiako Estatuaren indartzen duela eta gainera, ezker abertzalearen espresio politikoa garatzea oztopatzen duela nazionalismoa bere osotasunean lideratzeko.

Nola ikusten duzu EAJ orain?

EAJk bere bidea aurkitu behar du. Bere irudia boxealari ukituarena da, koadrilateroaren bazterra bilatzen ari da arnasa hartzeko eta ez du aurkitzen. Gero eta beherago doazen hauteskunduak emaitzek lotuta dago, Ibarretxe lehendakariak ezarri zuen egutegia, Damoklesen ezpata da bere buruaren gainean. Bere arazo serioena barne gatazka konpondu gabea da ordea.

Uztailean onartu zuen ponentzia politikoa otarraina izatea espero nuen nik, baina itsaski nahaskia izan zen. Senecaren esatera batek ondo argitzen du EAJren norabide eza: “Bere portua garbi ez duen itsasontziak haize gutxiak kontrakoak ditu”.

Hogeita hamar urte eta orain zer?

Azken urteotan eraiki eta erori den negoziazio markoak ez du askorako emango. Zapatero ez da politikari sinesgarria. Ez da *hábil* baizik eta *lábil*. Zapatero pertsona bihurria da, soluzioa bere interesen alde bilatzen eta ziria sartzen duena. Beraz, euskaldunok gure buruari gehiago begiratu behar diogu eta gutxiago Madrilera.

Estatuak itun berri bati uko egiten dio hala ere. Zer egin?

Gogoetatu behar dugu. Eragile politikoek eta iritzi politiko emaileek aztertu behar dute zein diren abertzaleok bateratzen gaituzten elementuak, nora joan nahi dugun argitzeko. Izan diren mugarrak kasuz kasu aztertu eta bidean eratu ditugun instituzioak sendotzea da lehen egitekoa. Inhibiziorik gabe, begirada introspektiboa egin behar dugu hogeita hamar urteetan zer egin dugun ongi, instituzioek zer eman duten, aldeko osagaiak eta balio ez dutenak bilatu eta zehaztu. Barne begirada hori askoz garrantzizkoagoa da ETAk Estatuarekin negoziatuko ote duen jakitea baino. Egunen batean eginen badute oso ondo, egon dadila kontrol parlamentarioa eta bien bitartean legea aplikatu dadila, Estatuari barne. Niretzat bide hori bukatu da halere: ez da bigarren trantsizioa izango, ez dut uste erreforma konstituzionala izango denik –zortzi bat urtetan gutxienez– ezta Senatuaren erreforma ere, ezta jaezen gobernu hautatzeko sistema aldatuko denik ere.

Bakealdirik ez dugu izango, beraz.

Oraingoz ez. Arazoa ez baita prezio politikoa eskatzea bakearen truke. Jose Maria Setieni aurpegiratzen zitzaiona, prezio politiko asko dagoela zioelako. Kontua da denek nahi diotela bakeari etekina atera, eta etekin askoren pilaketak bakea ezinezkoa egiten du. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria> helbidean, elkarrizketa honen bertsio luzea.



(...)

Areago: ingelesez eta irlandarren arteko konpromisoan berebiziko osagaia demokrazia ordezkatzailea onartzea izan da. Ingelesek esan dezakete gorritu gabe interesak dituztela Irlandan, eta onar dezakete irlandarren “unionistak edo errepublikarrak” espresioa. Irlandarrek demokrazia ordezkatzailea onar dezakete esan gabe “demokrazia ingelesa”. Hemendik hogeita bost urtera, garapen demografikoa medio, irlandarrek gehiengoa izango dira. Hau da IRAk pazientzia demokratikoa izan du, ETAk aldiz ez.

Alde handiagoa dago beraz.

Bai. Eta besterik ere badago: espainolek [PSOEek eta PPK] konpromiso demokratiko alferria daukate. Eta beste bat: IRAk 800 bat polizia edo soldadu hil zituen, baina biktimen